



Recibimiento a los acordeonistas. Imanol OTEGI | ARGAZKI PRESS

Los mejores acordeonistas se reúnen estos días en el concurso de Arrasate

GARA | ARRASATE

Arrasate se encuentra sumergida estos días en el Concurso internacional de acordeón, que comenzó el viernes y se alargará hasta mañana. Como ya viene siendo tradición los últimos años el certamen se compone por tres apartados: el XXIX Certamen Gipuzkoano, el XXI Festival Gipuzkoano y el XVI Certamen Internacional.

Durante la jornada de ayer, precisamente, tuvieron lugar las categorías Senior e Infantil del Certamen Gipuzkoano. En la categoría Senior se clasificaron Cristina Cortina, Blai Navarro y Nerea Pérez y en la Infantil Lore Amenabar, Asier de Miguel, Néstor Gascue y Maite Miqueleiz.

Además, se ha celebrado el XXI Festival Guipuzcoano

con cerca de 150 participantes. Asimismo, al mediodía el ayuntamiento de la localidad ofreció un recibimiento a los artistas que se han trasladado estos días hasta Arrasate.

Es el certamen internacional el que llama más la atención ya que reúne a 28 acordeonistas de alto nivel procedentes de diferentes rincones del planeta: Finlandia, Estado francés, China, Rusia, Serbia, Alemania, Estonia o Ucrania. Hoy se llevarán a cabo las fases finales de este concurso. Será mañana cuando se reúnan todos los participantes en la gala final y se proceda a la entrega de premios. Durante estos días, además, Arrasate acoge varias iniciativas relacionadas con el mundo del acordeón como café conciertos o ambiente en las calle.

Enrike Knörrek Aramaion burutzen zuen ekimenari lekukoa hartuz, izaera dibulгатiboa izango da aztergai Geu elkarteak antolatutako jardunaldiotan. Hitzordua, hilaren 9tik 11ra Gasteizko Artiumen.

Hitzaldi eta ikuskizunen bidez, Lazarraga poeta arabarrari buruz jardungo da Artium museoan

Itziar AMESTOY | GASTEIZ

Beste norbaitek antolatutako egitasmo bat aurrera eramatea ez da batere erronka erdeinagarrria. Are gutxiago, norbait hori Enrike Knörrek bada. Horrekin topo egin zuten Geu aldizkari eta elkarteko kideek Arabako Foru Aldunditik euskararen inguruko jardunaldi batzuk antolatzea proposatu zieten. Lan-talde bat osatu zuten eta Knörrek urtero Aramaion antolatzen zutenari bestelako izaera eman zioten, askoz zabalagoa eta dibulgaziozkoagoa. Emaitza, asteartetik ostegunera ikusi ahal izango da Gasteizko Artium museoan.

Jardunaldiotan Lazarraga poetari buruz arituko dira hiru egunetan zehar. «Helburu nagusia XVI. mendeko poeta arabar honen garrantzia ezagutaraztea eta zabaltzea da, Arabaren erronkatzat jotzen baitugu», esan zuen Estitxu Breñas, «Geu» aldizkariaren zuzendariak, ekimenaren aurkezpenaren. Zabalteko xedean, jardunaldiek hitzaldiak ez ezik, hainbat ikuskizun artistiko eskainiko dituzte. Hala, egun bakoitzean pare bat adituren hitzaldiak eta bestelako emanaldiak ere izango dira. Dibulgazioa, ordea, harago doa. Knörrek egindakoaren parean, lehen aldaketa ekimena Aramaiotik Gasteizera lekualdatzea izan da, jende gehiago hurbiltzea helburu. Horrez gain,

HIRU ILDO

XVI. mendeko poeta arabarra ezagutarazteko hiru alor landuko dira, egun bakoitzeko bat. Horrela, Lazarragarekin lotuta, euskara, gizartea eta literaturari buruz arituko dira.

unibertsitate ikastaro espezializatu izatetik publiko zabalari zuzendutakoak izatera pasa dira eta, azkenik, euskarazko kultur munduarekin interesatuta dagoen edonor erakartzeko itzulpen zerbitzua izango da hitzaldi guztietan.

Lazarraga aukeratzeak hiru arrazoiz nagusi izan ditu. Lehenik, arabarra zelako, bigarrenik, noblea zelako, eta azkenik, bere lana Errenazimentuan bete-betean kokatzen delako, hots, goi mailako kultur giroan. Hala, hiru ildo nagusi jarraituko dituzte jardunaldiek. Lehen egunean, «Lazarraga eta euskara» izango da jorratuko den gaia, asteazkenean «Lazarraga eta Gizartea» eta azken egunean «Lazarraga eta Literatura».

Asteartean, Bernardo Atxagaren aurkezpenaren ondoren, hasiko dira jardunaldiak. Gidor Bilbao Lazarragaren edizioari buruz mintzatuko da, honen testuak orain dela lau urte aurkitu baitziren Madrilgo antikuario batean. Koldo Zuazo ere arituko da eta Lazarragaren poesian oinarritutako poema irakurketa egingo da. Hainbat adituen hitzaldiez gain, ostegunean, Ortzai antzerki laborategiak poeta arabarraren testuak lehendabizikoz taularatuko ditu «Maitasunaren saltsan» ikuskinarekin eta, horrez gain, ekimen honetarako espresuki prestatu den bertso trama batekin amaituko dira jardunaldiak.

Fitxa

Tokia: Artiumeko areto nagusian.
Data: Abenduaren 9tik 11ra.
Orduak: 18.30etik aurrera.
Antolatzaileak: Geu elkarte eta Arabako Foru Aldundia.
Salneurria: Dohainik, aretoa bete arte.
Datuak: Hitzaldi guztietan itzulpen zerbitzua egongo da.



EL ICONO DEL PUNK-ROCK. Patti Smith causó una gran expectación con el recital poético que ofreció ayer en el Artium. Sola o con el acompañamiento de la guitarra de Gari fue interpretando su particular repertorio de canciones y poemas ante una sala llena.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

Piratak ikuskizuna herriz-herri | Ajenda: www.katxiporreta.com

“ESKERRIK ASKO!” DVDa eta **“PIRATAK”** Disko-liburu berria

PREST!!!